Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 417

Martxoak 15, 2022

Emakumeen Nazioarteko Eguna martxoaren 8tik haratagoa doan zerbait delako

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Emakumeen Etxea
4 Martxoak 8
5 Ekiteko prestakuntza
6 Euskararen hilabetea
7 Ukrainara laguntza
8 Kirolak: Futbol egokitua
9 Kirolak: Txingudi Egaindar
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Ziztaka
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
· FAMILIAREN ATSEDENERAKO
· ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
· GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

2132

12098

57821

"El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak laburtzen ditu. Zehazki, aldizkariaren 342. zenbakiko lehen albistean hiriko kirol zelaiarekin loturiko nobedadeak biltzen dira, 1922ko martxoaren 15ean amaitu baitzen hiritarrek lehiaketara zelaiak aurkezteko epea. Yolek idatzitako "Todo para ti" bertso erromantikoaren ostean, Real Union taldeak martxoaren 23an Amuten jokatuko duen partidua modu ezohikoan iragartzen da, iragarkia argazki eta marko batez apaindua dagoelako eta orain arte "El Bidasoa" aldizkarian ia ez zen argazkirik erabiltzen. E.R. kolaboratzaileak, berriz, aduanetako arantzelen aldaketak eragindako egoera kaotikoa kontatzen du. "Carta abierta" idatzian Miguelónek azaltzen du aurrerantzean aldizkarian "Don Sincero" izeneko kolaborazio atal berria izango duela.

Kirol kronikan Real Unionek Real Fortuna taldearen aurkako partidua irabazi duela gogoratzeaz gainera, aldizkaria argitaratzen den egunean bertan Bouzasen, Galizian, jokatzekoa den partiduaren xehetasunak ematen dira. "Futbolerías" atalak, aldiz, futbolarekin loturiko bestelako albiste laburragoak eta orokorragoak biltzen ditu. Horacio de Sarasquetak gazte irundarrentzako Patronatuaren Aretoan egingo diren hitzaldi erlijiosoen berri ematen du, gazteak kristautasunean hezi daitezen eta etorkizun oparo bat izan dezaten. Jarraian, Udalak jakinarazten du hiriko zaborren bilketa esleitzeko lehiaketa antolatu duela. Gainera, aldizkariaren bigarren orrialdearen amaieran azken hauteskundeekin loturiko irregulartasunak aipatzen dira.

Azkenik, hirugarren orrialdean jakinarazten da Irungo Atsegiña elkartearen egoitzaren inaugurazioa martxoaren 26an egingo dela. "El Bidasoa" aldizkariaren 342. zenbakia sobera ezagunak diren "Notas Municipales", "De todo un poco" eta "Ecos de Sociedad" atalekin amaitzen da.

Argazkiak:

2132: Taldearen erretratua Patronatuaren aurrean, Sociedad de Buenos Amigos elkartearen egoitzan (Junkal plazatxoa).

12098: Irungo Atsegiñaren XXXI. urteurrena. Zapatarien konpartsa Fermin Calbeton kalearen inguruan.

57821: Baserritarrak zelaian lanean, Jaizkibel mendian XX. mendean.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Emakumeen Etxea Irungo feminismoaren erdigune izango da

Emakumeen etxearen proiektuari 2021eko hasieran berriro ekin zitzaion. Lehen saioak online formatuan egin ziren pandemiaren egoeragatik eta azken hilabeteetako saioak, berriz, aurrez aurre egin dira. Guztira, aurreikusitako hamaika saioetatik zazpi egin dira dagoeneko, hileko bigarren larunbatean betiere.

Miren Echeveste Berdintasun ordezkariak nabarmendu duenez, "prozesuaren funtsezko momentu batean gaude: gauza asko zehaztu ditugu dagoeneko, eta beste asko zehaztear gaude". Izan ere prozesu parte hartzailearen bidez gauza asko argitzen ari dira. Echevestek adierazi duenez, "parte hartzaileen arteko ulermen eta adostasun maila oso handia da". Erantsi duenez, "Udaleko talde politikoak prozesuaren emaitzak aztertzearren esertzeko eta Irungo Emakumeen Etxeak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa duen babes guztia duela bermatzeko urratsak egiteko garaia da orain".

Berdintasun Arloko arduradunek azaldu dutenez, honako hauek dira prozesuaren printzipioak: konpromisoa, informazioaren gardentasun eta berdintasuna, ahizpatasunean oinarritutako harremanak, aniztasuna, saioen presentzialtasuna eta proiektu komun batean lan egiteko gogoa.

Era berean, orain arteko saioetan, Irungo Emakumeen Etxea izango denaren funtsezko alderdiak landu dira, hala nola Etxearen erabiltzaileak: emakumeak, adiera zabalean, euren izaera, jatorria, orientazioa eta ideologia direnak direla (queer pertsonak, ez-binarioak, etab.); mugimendu feminista; eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteak. Edonola ere, malgutasun eta irekitasun printzipioek bideratuko dute Etxearen eguneroko funtzionamendua.

Horrekin batera, espazio fisikoa eta Istillaga plazako lokala egokitzeko proiektua osatzen duten oinarrizko planoak zehazten ari dira prozesuan parte hartzen ari diren emakumeak, zerbitzuak, erakusketak, tailerrak, hitzaldiak, bilerak, eztabaidak eta nolanahiko beste jarduera batzuk antolatzeko gune balioaniztunak moldatzeko moduan.

Ondo definitutako printzipioak

Irungo Emakumeen Etxea zuzenduko duten printzipioak ere zehaztu dira: parte-hartzaileen arabera, ekipamendua publikoa, irekia, integratzailea eta plurala izango da; sorkuntza, berrikuntza eta elkarteen lana sustatzeko espazio kolektibo bat, arreta pertsonalizatu, diskretu eta segurua emango duena eta zerbitzu eraginkor eta profesionalak eskainiko dituena, non Udaleko Berdintasun Zerbitzua eta ekipamendua erabiltzen duten emakume eta elkarteak modu eraginkorrean eta ikuspuntu feminista koordinatuko diren. Azken batean, prozesuan parte hartzen ari diren emakumeek Etxea proiektu bizi, malgu eta iraunkor bat izan dadin nahi dute, non gozatu, elkar zaindu eta ahaldundu egingo diren.

Jardueren zerrenda

Jorratu den beste gai bat Etxeari bizitza emango dioten jarduerak eta lantalde iraunkorrak dira. Bada, hiru bloke bereizi dira:

1. Ahalduntze Eskola (emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa sustatzeko ikastaro eta tailerrak, teoria eta praktika feministei buruz hausnartu eta eztabaidatzeko espazioak eta emakumeek betetzen duten eginkizuna eta gizarteari eta jakintzari egiten dieten ekarpena bistaratzeko espazioak)

2. Autolaguntza eta antolaketa taldeak (entzumen aktiboa, lankidetza eta aktibismoa sustatzeko lantaldeak, zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak ahalduntzeko besteak beste)

3. Aholkularitza zerbitzuak (laguntza psikologikoa, juridikoa, afektibo sexuala, etxeko langileentzako laguntza, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza eta, oro har, edozein emakumerentzako laguntza)

Aurrera begirako helburuak asko dira. Besteak beste, emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa, inklusioan oinarritutako elkartasuna, matxismoaren kontrako borroka eta hiriko mugimendu feministaren sustapen eta sendotzea; azken batean, Irun feminista bultzatzea.

Orain arte Emakumeen Etxearen prozesuaren barnean oinarrizko hainbat gai zehaztu dira. Batetik, Etxea erabiltzen duten emakumeek Etxearen eguneroko funtzionamenduan hitza eta botoa izan nahia eta, horretarako, Udalaren eta erabiltzaileen beren arteko kudeaketa eredu bat sortzeko beharra. Eredu hori erabiltzaileen eta erabiltzaile elkartearen kudeaketa organoez eta Udaleko zerbitzu teknikoekin koordinatzeko organoez osatuko da, zeinek behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren bermeak izan beharko dituzten.

Hurrengo saioetan, hortaz, Etxea kudeatzeko organoak eta Etxearen eguneroko funtzionamendua bideratuko duten arauak zehaztea izango da helburua (ordutegiak, espazioen erreserba, oinarrizko erabilera arauak, lehentasunak, langile beharrak...), baita Etxea izendatzea ere. Berdintasun ordezkariek aurreratu dutenez Emakumeen Etxearen izena zehazteko beste partaidetza prozesu bat eramango da aurrera, aurrekoen moduan, irekia izango dena.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Martxoaren 8a baino haratago doan zerbait

Ohiko moduan Emakumeen Nazioarteko Eguna modu berezian ospatu da hirian. Kaleak more kolorez jantzi ziren martxoaren 8an. Egun seinalatua izanik hainbat ekintza egin baziren ere, Irunen Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekintzak martxo osoan zehar egingo dira. Dena den, berriro ere behintzat egun batez kaleak hartu eta emakumeen eskubideak aldarrikatzeko beharra argi gelditu zen.

Martxoaren 8a euritsu hasi zen Irunen eta goizeko ekitaldiak euri tantek zipriztinduta egon ziren. Urak, ordea, ez zituen emakumeen omenez antolatutako ekitaldiak zapuztu. Irunen egindako lehen ekitaldia Zabaltza plazan Bidasoko M8 Asanblada Feministak antolatutako "Zatoz eta utzi zure mezua" ekintza izan zen. Tailerrak goizeko 11:00etatik aurrera plaza ingurutik igaro zen jendeari mahaira hurbildu eta haien aldarrikapen mezua kartel batean idazteko aukera eman zion.

Irene Kastezubi Arellano asanbladako kideak azaldu zuen, "aurten berriro Euskal Herriko Mugimendu Feministak ateratako lemarekin bat egin dugu: Sua patriarkatuari". Izan ere, aurten lehen aldiz M8 asanbladak antolatutako ekintzak Irungo Udalak antolatutako egitarauaren barnean txertatu dira. Izan ere, Irene Kastezubi Arrellanok adierazi duenez feminismoak batasuna behar du eta zenbat eta gehiago batu indar handiagoa izango du mugimenduak.

Eguerdiko 12:00etan udaletxe aurrean udal korporazioak "Egunero izan beharko litzateke M8" elkarretaratzean parte hartu zuen. Miren Echeveste Irungo Udaleko Berdintasun ordezkariaren hitzetan, "urteko egun guztietan aldarrikatu beharko litzateke emakumeak gure gizartean duen papera". Emakumeei aintzatespen hori egiteko Irunen lortutako zeharkakotasuna azpimarratu du Berdintasun ordezkariak, benetan berdintasuna lortzeko, Berdintasun zerbitzuaz gainera, udal talde osoaren, elkarte feministen eta gizarte osoaren konpromisoa beharrezkoa baita.

Arratsaldean, berriz, aldarrikapenak kalera irten eta Txingudi badiaren mutur batetik bestera barreiatu zituzten Bidasoko M8 asanblada feministako kideek antolatutako mobilizazioaren bitartez. Manifestazioa Hondarribiko M8 plazan hasi, Irungo erdigunea zeharkatu eta Bidasoa ibaia zeharkatuz iparraldeko lurretaraino iritsi zen. Bidean, goizean Zabaltza plazan bildutako mezuak jasotzeko etenaldi txikia egin zuen manifestazioak eta bidean aurrera egin ahala aldarrikapenak ibilbide morera batu ziren.

Oraindik egiteko dauden jarduerak

Martxoaren 8ak 24 orduko iraupena besterik ez duen arren, ospakizunak denboran luzatuko dira, Emakumeen Nazioarteko Egunak hala merezi baitu. Martxoaren 19an, Irungo Udalak antolaturik, "Man up" antzerkia ikusi ahalko da Amaia Kultur Zentroan. Martxoaren 23an, berriz, Yurre Ugartek, Oihana Etxebarrietak, Leire Ibargurenek, Iratxe Retolazak eta Danele Sarriugartek "LISIPEren inguruan. Gure Mahaia" mahai-inguruan parte hartuko dute. Martxoaren 25ean Emakumearen Nazioarteko Egunarekin loturiko ekintzak CBA liburutegian gauzatuko dira, Anna Freixasek "Yo vieja" elkarrizketa saioa eskainiko baitu.

Era berean, martxoaren 4tik 18ra Irungo Adinekoen espazioetan "Elsa & Fred" filma eman eta ondoren filmaren inguruko mintzaldia egingo da Bidasoaldeko Elkarte Feministaren eskutik. Anaka-Puianako, San Migeleko eta Behobiako emanaldien ostean, azkena martxoaren 18ko emanaldia izango da, Belaskoenean egingo dena. Gainera, martxoaren 4tik apirilaren 23ra bitartean Gazteartean Expo Ainara Azpiazuren "Zabal zabalik" erakusketa egongo da ikusgai.

Martxoaren 8a pasata, eguneroko ekintza eta gertaerek erakutsiko dute benetan martxoaren zortzigarrenaz gain, ea urteko gainontzeko egunak Emakumeen Nazioarteko Eguneko aldarrikapenen isla diren.

Ekitea errazagoa da konpainiarekin egiten bada

Ekitea errazagoa da lagunduta egiten bada. Hori dela eta, Ana Eguiazabalek, Tania Benitok eta Ana Pereirak ekintzaileei zuzendutako prestakuntza bat abian jartzea erabaki dute. "Emprende tu idea" prestakuntza apirilaren 1ean hasiko da eta Bidasoa Business Centerren bertan egingo da aurrez aurre. Proiektuaren bultzatzaileek jakinarazi dutenez ikastaroan izena emateko epea zabalik dago.

Norentzako da prestatzen ari zareten ikastaroa?

Ana E.: Prestakuntza hau Bidasoa Formaciónetik sortu da, Bidasoa Business Centerren barruan dagoena. Ekintzaileengan pentsatuz eta gugan ere pentsatuz abiatu dugun zerbait da, ekintzaileak ere izan baikara. Ideia bat garatu gabe duten eta aurrera egin nahi duten pertsona horiei zuzenduta dago. Oso prestakuntza zehatza izatea nahi dugu, ideia garrantzitsuenetan zentratzeko.

Zein ardura izango du zuetako bakoitzak ikastaroaren barruan?

Ana E.: Ni koordinatzailea naiz, baina bakoitzak pisu desberdina izango du prestakuntzaren barruan. Nik autoezagutzaren alderdia lantzen dut, ekintzailetzarekin oso lotuta baitago.

Tania: Irakastorduak gure esperientziaren eta ezagutzen arabera banatu ditugu. Nik helburuen definizioan eta plangintzan jarriko dut arreta.

Ana P.: Ni arduratuko naiz komunikazio- eta salmenta-moduluaz, hori baita nire espezialitatea eta nire ibilbidea. Bezeroarengana iristean zure komunikatzeko moduak duen eragina aztertuko dugu, baita horrek salmentetan duen eragina ere. Salmentarik gabe ez baitago negoziorik.

Zuen artean elkarlanean tailer bat eskainiko duzuen lehen aldia izango da?

Ana E.: Bai, erronka handia izan arren, gogotsu gaude. Elkarren artean oso ondo moldatzen gara eta ikastaro honek izan dezakeen garrantzian sinesten dugu. Gure esperientziak erakutsi digu zeintzuk diren garrantzia duten gauzak.

Ana P.: Antzeko prestakuntza baina aldi berean osagarria dugu. Gaur egun, uste dut ekintzailetza dela jendeak lana aurkitzeko kontuan hartu behar duen aukeretako bat. Jende askok ez du ezagutzen ekiteko bidea, eta arlo asko garrantzitsuak dira.

Nola antolatu duzue prestakuntza tailerra?

Tania: Aurrez aurreko prestakuntza izango da eta erronka handia, izan ere, gu geu ekintzaile izan ginenean bidean aurkitutako oztopoak errazten ahalegindu nahi dugu. Oinarriak ondo finkatu nahi ditugu, aurrera jarraitzea errazagoa izan dadin.

Pandemiak ekintzailetza bultzatu edo murriztu egin du?

Ana E.: Pandemiak krisi gogorra ekarri du, baina, aldi berean, aukera asko sortzen dira. Une honetan jende asko dago ekiteko gogoz, eta konturatu dira ideiak diru iturri bihur daitezkeela.

Ana P.: Biztanleriaren sektore bati interesgarria iruditzen zaio ikasteko aukera, bere nagusi izan nahi duelako edo oso ideia zehatzak dituelako zerbait desberdina eskaintzeko. Pertsona horiek saiatzera animatzen ditugu, beti nolabaiteko bermearekin. Aldez aurreko urrats horiek egiten ez badituzu, nabarmen gutxitzen dira arrakasta aukerak.

Tania: Pandemiaren ondorioz, jende askok bere egoera profesionala birplanteatu du. Enplegu Erregulazioko Espedienteek eta Aldi Baterako Lan Erregulazioko Espedienteek kolokan jarri dute askok sentitzen zuten segurtasuna. Jendea beste aukera batzuk planteatzen ari da.

Banakako ikaskuntzaz gain, komunitate bat sortu nahi duzue?

Ana E.: Hori da ideia. Ekintzaileen komunitate bat sortu nahi dugu hemen, Bidasoa Business Centerren. Komunitate honek elkarri laguntzeko eta bizipenak partekatzeko balio izatea nahi dugu. Ekintzailetzan bakardade handia dago, eta ez dugu nahi horrela izaten jarraitzea.

Tania: Besteren kontura lan egiten duzunean, errazagoa da norbait aurkitzea sentitzen duzuna partekatzeko. Ekiten ari zarenean ez dago sentitzen duzuna ulertzen duen hainbeste jenderik. Garrantzitsua da ulertzen zaituen jendeaz inguratzea.

Edonor eta edozein ideiarekin bihurtu daiteke ekintzaile?

Ana P.: Nik uste dut guztiok ditugula ametsak, eta askotan haien atzetik ibili ondoren errealitate bihurtzen direla. Uste dut sinesmen eta judizio faltsuak garaitzea beharrezkoa dela. Hala ere, bakoitzaren egoeraren azterketa sakona egin behar da. Nire ustez, mundu guztia da ekiteko gai, denok baitugu zerbait ezberdina emateko.

Ana E.: Oso garrantzitsua da aldez aurretik azterketa bat egitea zure ideiaren potentziala zein den ikusteko. Errentagarria izan daitekeen ala ez jakiteaz gain, garrantzitsua da jakitea ea beste gaitasunen bat garatu behar duzun hori gauzatu ahal izateko. Horregatik, ekintzailetzaren aurreko zatia ere oso garrantzitsua da.

Prestakuntzan parte hartu nahi dutenak nola jarri daitezke zuekin harremanetan?

Ana E.: Gure sare sozialetan taldearen kartela partekatu dugu. Kartel horretan bertan, 688 889 547 telefonoa eta info@bidasoaformación.es posta elektronikoa agertzen dira eta horien bitartez gurekin hitz egin ahalko dute. Era berean, nahiago duena Irungo Eliza kaleko 4. zenbakira hurbil daiteke. Bulegoa eraikinaren solairuartean dago, eta bulegoa ezagutzeaz gain, gurekin zalantza guztiak argitzeko aukera izango dute.

“Sortu, egin eta eragin euskaraz” lelopean antolatuko da Euskararen Hilabetea

Irungo Udaleko Euskara Arloak Euskararen Hilabetea antolatuko du martxoan zehar urtero moduan. Euskararen Hilabetearen helburua da haurren eta gazteen motibazioan eragitea, euskararen aldeko jarrera positiboa sustatzeaz gainera. Zehazki, haurrak eta gazteak euskararekin lotuko dituzten ekintzak martxoaren 10etik 31ra egingo dira. Jardunaldiak “Sortu, egin eta eragin euskaraz!” leloa izango du.

Euskararen Hilabetea, Irungo Euskara Sustatzeko Ekintza planaren barnean dagoen programa da. Irungo ikastetxe eta institutuetako ikasleek hartzen dute parte, Haur Hezkuntzatik hasita DBHko 4. mailara arte, hau da, 3 urtetik 16 urte bitartekoek. Aurten 7.000 ikasle izango dira parte-hartzaileak.

Miren Echeveste Euskara ordezkariak azaldu duenez, ekimen honen bitartez “haur eta gazteak kitzikatu nahi ditugu euskararekiko duten motibazioan eraginez, antzezlanekin edo elkarrekin Mintzodromo batean daudenean emozionatuaraziz”.

Euskararen Hilabetearekin loturik hiru ekinbide aurreikusi dira: euskaraz ekoiztutako kalitate handiko ikuskizunak, gazteen mintzodromoa eta IRUNERO aldizkariaren bi ale berezi.

Euskaraz ekoiztutako ikuskizunak

Ikuskizunei dagokienez, martxoaren 10ean, Astrolabium Teatroak “Butterfly Effect” antzezlana taularatu zuen, Irungo Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoentzat. Ikuskizun honetan kontatzen zuten Papillon eta Clemont ferianteek zinea herriz herri eramaten zutela, kamera puskatu zitzaien arte. Ikuskizuna aurrera eraman nahian proiektatu behar zuten filma beraiek kontatzea erabakitzen dute. Historian zehar garrantzitsuak izan diren gertakariak kontatu zizkieten ikasleei. Obra honen bidez, gainera, emakumeek askatasunaren bidean eman izan dituzten pausoei erreparatzeko aukera eman zaio ikuslegoari.

Martxoaren 16 eta 17an, Haur Hezkuntzako ikasleen txanda izango da. La Baldufa taldearen eskutik “SAFARI” antzezlanaz gozatzeko aukera izango dute. Antzezlan horretan Piñote eta Kalabazin lagunak dira protagonista. Ikertzaileak dira hauek eta Lehoiaren desagerpen misteriotsuaren berri izan bezain pronto ikerketa lanetan hasi dira harik eta lehoiarekin topo egiten duten arte. Ez da betikoa, ordea, triste eta pentsakor dago. Baina, zergatik? Txikienei zuzendutako lan honetan, Bullying-a edo bazterkeria da istorioaren mamia. Umeek animalien jarrerak ikusiz beraien mehatxu eta jokabide propioak uler ditzakete.

Azken emanaldia martxoaren 30ean eta 31n egingo da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irungo ikasle guztien txanda izango da. “Ameriketako Bidaia” antzezlana ikusiko dute, Tanttaka Teatroak eskainita.

Istorioan bi nerabe euskaldunen pasadizoa kontatzen zaigu, izan ere, Jone eta Maria, Estatu Batuetara joan dira ikasturte osorako. Oso desberdinak dira, eta ez dira konpontzen. Jonek “amerikarren bizimodua”-ri buruzko iritzi ona dauka. Mariak yankiekiko aurreiritzi asko ditu. Aireportuan daudelarik, Joneri bere ekipaia eta dokumentazioa lapurtuko diote. Poliziak latino immigrante ilegaltzat jo eta atxilotu egingo dute. Hizkuntza arazoak eta aurreiritzi arrazialak direla eta, egoera kafkiano bat jasango du. Astebete dramatiko bat pasa ostean, Mexikoko mugara deportatua izan baino lehenago askatuko dute. Jonek hainbeste miresten zuen Amerika horren alde iluna ezagutuko du. Maria, aldiz, adiskidetu egingo da orain arte gutxiesten zuen gizarte horrekin, jende solidarioa ezagutuko baitu. Zer esango diote elkarri etxera bueltan?

Mintzodromoak gazteentzat

Bigarren Hezkuntzako 3. mailako gazteek bi Mintzodromoetan parte hartzeko aukera izango dute, bata, martxoaren 18an eta bestea martxoaren 24an. Biak ala biak Mendibil Merkataritza Guneko kafetegigunean izango dira, Mondragon Unibertsitateko HOX taldeko kide gazteek gidatuta. Bertan, parte hartuko duten hiru institutuetako ikasleek hainbat gaien inguruan beste institutuetako ikasleekin euskaraz hitz egiteko aukera izango dute.

Iruneroren ale bereziak

Horretaz gain, ikasleen sormena erakusteko, aurten ere Iruneroren bi ale berezi argitaratuko dira. Ale berezi horietako batek HH, LH1, LH2, LH3 eta LH4ko ikasleen lanak jasoko ditu, eta besteak, LH5, LH6 eta DBHko ikasleen lanak. Irunero bereziak ikastetxe eta institutuetan banatuko dira, eta Irungo udalaren webgunean eskuragai egongo dira, halaber.

Irun laguntza eta elkartasuna Ukrainara helarazteko antolatzen hasi da

Ukrainako gerrak muga guztiak gainditu ditu. Ukrainak Errusiako erasoei aurre egiten dien bitartean, gainontzeko herrialdeak nazioarteko laguntzaren kudeaketa egokia eta bidalketa bermatzeko buru-belarri ari dira lanean. Irun eta bertako herritarrak gatazkaren biktimei laguntzeko batu dira eta Ukrainara bidali nahi den laguntza antolatzeko lanean ari dira. Izan ere, elkartasunak ez du mugarik ezagutzen.

Ukrainako gatazka lehertu bezain laster, herrialdeak bizi duen egoera arintzen laguntzeko nazioarteko laguntza kudeatzeko beharra sortu da. Hasiera batean, Irungo Nafarroa hiribidetik Slavianka denda hasi zen Ukrainarako laguntza kudeatzen. Martxoaren hasieratik ordea, Pentecostés parrokiako lokaletan jasotzen eta antolatzen da eskualdeko laguntza. Bestetik, 90eko hamarkadan Ukrainako haurrak Irunen hartu zituzten familiak berriro antolatzen hasi dira, Ukrainak bizi duen egoera larria dela eta. Horrela, Ukrainako herritarren sufrimendua arindu nahi duten beste familia eta kolektibo batzuekin bilera bat egin zen martxoaren 5ean Palmera Montero gunean.

Udal babesa

Bestetik, martxoaren 9ko eguerdiko 12:00etan Irungo San Juan plazan 5 minutuko iraupena izan zuen elkarretaratze isila egin zen. Elkarretaratzearen bidez Udal Gobernuak Ukrainako herriari babesa eta elkartasuna helarazi zion, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak eta FEMP Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak deituriko ekitaldiaren bitartez.

Elkartasuna Ukrainara bidean

Pentecostés elizaren azpiko lokaletan pertsonen sarrera eta irteera etengabea da. Elikagaiez, sendagaiez eta jantziz beteriko kaxen joan-etorriak ere ez du etenik. Mugimendu jarraitu eta jende mordo horren erdian Olga Mrusmytska dago, ukrainar jatorriko boluntarioa. Minutu batzuez, bildutako material kutxak antolatzeari eta muntatzeari utzi dio, komunikabide honen galderei erantzun ahal izateko. Izan ere, Olga Mrumytskak adierazi duenez, irailean hasi ziren Belaskoeneako parrokiako lokalak atontzen, elizak laga arren, oso egoera txarrean baitzeuden instalakuntzak. Konponketa lanak egin ostean, egoitza berria ukrainar familien haurrei irakasteko edo ukraniar festak ospatzeko erabili nahi zen. Hasiera batean aisialdirako erabili nahi bazen ere, gerra hasi ondoren, eskualdeko laguntza koordinatzeko egoitza nagusi bihurtu da.

Horrela, Ukrainara bidaliko den laguntza Ukraina-Euskadi erakundearen bitartez kudeatzen da eta Belaskoeneako parrokiako egoitza elkarteari ematen zaion laguntza guztia kudeatzeko beste puntu bat besterik ez da. Irungo bizilagunen elkartasunari esker, dagoeneko Ukrainara bidean daude laguntza humanitarioz betetako lehen kamioiak. Olga Mrumytskak azaldu duenez, “kamioiak ordea ezin dira Ukraina erdialderaino iritsi, beraz, bidalitako kaxa guztiak Poloniako mugan uzten dituzte”. Poloniako mugan antolatzen eta banatzen da Ukrainarentzat bidalitako laguntza. Izan ere, gerran dagoen herrialdetik ihes egin berri duten ukrainar errefuxiatuak babesteaz gainera, Ukrainan egoerari eusten diotenei laguntza bidaltzeko bide berriak bilatzen dira. Irundik Mrumytskak azaldu du, “tropa errusiarrek aurrera egin ahala gero eta zailagoa da herrialde erdialdera iristea, beraz, laguntza bidaltzeko bide berriak bilatu behar dira”.

Hala ere, esku gehiago behar dira hainbeste elkartasun behar bezala kudeatzeko. Olga Mrumytskak kontatu du behin laguntza Poloniara iristen denean, kamioi, furgoneta eta bestelako garraiobideen bitartez heltzen den laguntza kopuru handiak sailkatzeko eta banatzeko eskuak falta direla. Polonia eta Ukraina arteko mugara iritsitako boluntarioak ahal duten moduan moldatzen dira elkartasuna kudeatzeko. Ukraina barruan, aldiz, Mrumytskak azaldu du zaildu egiten dela jasotako materialaren banaketa. “Egunetik egunera herrialdea hutsago dago, bertan dauden gehienak gau eta egun ari dira borrokan lehen lerroan, eta gainerakoak sotoetan ezkutatuta daude”, gehitu du Irunen bizi den ukrainarrak. Gainera, Olga Mrumytskak laguntza Ukrainaraino heltzearen garrantzia azpimarratu du: “oraindik Ukrainan jarraitzen dutenek esan didate azenario batengatik edo erremolatxa batengatik 10 euro eskatzen dizkietela zabalik dauden dendetan”.

Itxaropen hitzak

Poloniako mugan ez bezala, Irungo “biltegi inprobisatuan” ez da ez elkartasunik ez lanerako gogorik falta. Irun eta inguruko herrietako ukrainar komunitatea bertan elkartu da kaxak muntatu, goraino bete eta bidalketarako prest uzteko. Orain gerra eremutik urrun bizi badira ere, ukrainar komunitatearentzat ez da erraza izaten ari gerra urruntasunetik jarraitzea. Liliana Zahariuk 15 urte daramatza Irunen bizitzen, baina Ukrainako hego-mendebaldeko Chernivsti hirian jaio zen. Ukrainarrak ahots etenez onartu du, “ez da erraza gatazka distantziatik bizitzea, ezintasun handia sentitzen duzulako eta zaila delako zure senideak laguntzeko modua aurkitzea”. Ezintasunak bultzatuta, Liliana Zahariuk ukrainarra gogor ari da lanean Irundik bere herrialdeari laguntzeko, baina baieztatu du gerra eremuan lagunak eta familiako kideak dauzkazunean etsipena areagotu egiten dela.

Laguntza eskatzen eta biltzen jarraitzeko beharra noiz arte luzatuko den? Erantzunik gabeko galdera da eta gehienek lehenbailehen erantzun nahiko luketena. Liliana Zahariuk eta Olga Mrumytskak hitz berdinekin erantzun diote galderari: lehenbailehen, ahal dela oraintxe bertan. Izan ere, ezinezkoa da gerrak izango duen irismena edo iraupena kalkulatzea, baina argi dago gatazka zenbat eta lehenago amaitu, ukrainar herriaren sufrimendua lehenago amaituko dela. Bien bitartean, urrutitik bada ere, herritarrekiko elkartasuna eta babesa ziurtatuak daude.

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

FOTOGRAFIA ESTUDIO GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

San Marcial klubak futbol egokituko jardunaldia antolatu zuen martxoaren 12an

Irungo San Marcial Klubak Gipuzkoako Futbol Federazioak eta Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak antolatutako futbol egokituko jardunaldian parte hartu zuen. Jardunaldia martxoaren 12ko goizean egin zen eta Gipuzkoako 20 neska-mutil inguruk parte hartu zuten bertan. Hirian egiten den futbol egokituko lehen jardunaldia bada ere, aldez aurretik San Marcial klubak bi kirol federazioek antolatutako proba pilotuan parte hartu zuen, Irunen egin baitzen.

Futbol egokituko jardunaldiak antolatzeko egitasmoa Gipuzkoako Futbol Federazioak eta Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak elkarrekin martxan jarritako proiektu batetik dator. Alicia Figueroa Kirol Egokituaren Federazioko Zuzendari Teknikoak adierazi duenez, "proiektu honen bitartez gure ideia aniztasun funtzionala duten haurrei kirola egiteko aukera eskaintzea da". Alicia Figueroaren hitzetan Irungo jardunaldiaren antzeko beste ekintza batzuk antolatu dira ere Arrasaten eta Azpeitian. Kirol Egokituko Federazioaren Zuzendari Teknikoak erantsi duenez, "oso eskertuta gaude San Marcial Klubari, futbolean aniztasun funtzionala duen jendeari ateak irekitzen lehenetarikoa delako".

Josu Zubia Gipuzkoako Futbol Federazioko Kirol Zuzendariak azaldu duenez, futbol egokituko jardunaldiak antolatzeko ideia lantzen hasi zirenean Gipuzkoako hainbat klubekin harremanetan jarri ziren eta ekimenean parte hartzeko asmoa erakutsi zuen lehen klubetako bat San Marcial izan zen. Zubiaren hitzetan, "kontuan hartzekoa da San Marcial bezalako klubek horrelako ekimenei esker aniztasun funtzionala duten neska-mutilei kirola egiteko aukera eskaintzen dietela". Izan ere, San Marcial klubean gauzatu zen proiektu honen lehen proba pilotua uda aurretik.
San Marcial klubean egindako jardunaldia formatu inklusiboan antolatu zen. Hau da, jardunaldian aniztasun funtzionala duten haurrek parte-hartzeaz gain, San Marcial klubeko infantileko lehenengo mailako haurrek ere parte hartu zuten. Kirol Egokituko Federazioaren ordezkariak azaldu moduan, jardunaldiaren bitartez "desberdintasunean bizitzea" nolakoa den ikasteaz gain, aniztasuna sustatzea da asmoa.

San Marcial klubak lehen kirol egokituko jardunaldiko proban parte hartu zuenetik, Gipuzkoako beste 7 klub batu dira proiektura. Jorge Vertiz San Marcial klubeko lehendakaria da eta honelako jardunaldi bereziak antolatu ostean, beti futbol egokituko ekintza gehiago prestatzeko gogoa pizten zaiela onartu du. "Oso proiektu polita da eta uste dugu horrelako espazio gehiago sortzea beharrezkoa dela". San Marcialeko lehendakariak azpimarratu du aniztasun funtzionala izan edo ez, haurrek horrelako jardunaldiak asko disfrutatzen dituztela eta lagun berriak egiteko aukera paregabeak direla.

Gozamenerako goiza

Futbol egokituko jardunaldiaren hasieran aurkezpen erronda txiki bat egiten zen haur parte-hartzaileek eta entrenatzaileek elkar ezagutu zezaten. Ondoren, taldeak adinaren arabera banatu ziren. San Marcial klubeko entrenatzaileek lau ariketa ezberdin prestatu zituzten eta 6 eta 8 jokalari arteko talde guztiek ariketa ezberdinak probatzeko aukera izan zuten goizean zehar. Entrenamendurako baliagarriak izan ziren ariketen ostean, parte-hartzaileek partidu bat jokatu zuten. Gainera, etxera joan aurretik luzaketak egiten ikasi zuten, luzaketak kirol-jardueran zeinen garrantzitsuak eta onuragarriak diren ulertzeko.
Egitasmo berezia

Irungo jardunaldia egin aurreko astean, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen zela aprobetxatuz, San Marcial klubak egitasmo berezia jarri zuen abian. Kamiseta batzuk diseinatu eta salgai jarri zituen aste horretan zehar, emakumeek futbolean duten papera ikusarazteko nahiarekin. Kirolean emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeaz gain, kamiseten salmentarekin bildutako diru guztia Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioari dohaintzan eman dio San Marcial klubak. "Espero dugu ekarpen ekonomiko hau federazioarentzat lagungarria izatea, kirol egokitua sustatzen jarraitzeko ekimen gehiago antolatzeko aukera izan dezaten".

Kirol aukera murritzak

Jorge Vertiz, Alicia Figueroak eta Josu Zubiak onartu dutenez, aniztasun funtzionala duten haur eta pertsonek oro har kirola praktikatzeko aukera gutxiago dute. Gipuzkoako Futbol Federazioko Josu Zubiak azaldu duenez, adin batetik aurrera jokalarien emaitzetan eta taldeen lehiakortasunean arreta handiagoa jartzen da, integrazioaren gisako beste helburu batzuk ahaztuz. Alicia Figueroak aipatu duenez, "oso garrantzitsua da San Marcial bezalako klubek horrelako ekintzak antolatzeko prestutasuna erakustea; horrela baliteke etorkizunean klubera jokalari berriak batzea".

Jorge Vertizek azaldu du San Marcial klubean garrantzi handia eman nahi diotela aniztasun funtzionala duten pertsonei futbolaz gozatzeko aukerak sortzeari. "Klubaren ardatza izango den proiektuetako bat izatea nahi dugu", gehitu du San Marcialeko lehendakariak. Horrela, futbol egokituko jardunaldi hauek gero eta maizago antolatu ahal izatea nahiko lukete. Vertizek adierazi duenez, "ez genuke nahi ekintza bakartu gisa ulertzea, hau da, maiztasun jakin batekin errepikatu nahi ditugu aniztasun funtzionala duten pertsonek kirola modu jarraituan praktikatu ahal izateko". Horretarako, San Marcial klubeko entrenatzaileek beren ezagutzak zabaltzeko, kirola aniztasun funtzionala duten pertsonetara egokitzen ikasteko hainbat prestakuntza-ikastaro egin dituzte klubean lehen froga pilotua egin zenetik.

Inoiz San Marcial klubean aniztasun funtzionala duten pertsonen talde bat sortuko balitz, Jorge Vertiz lehendakariak onartu du agian klubeko entrenatzaile taldea indartzea beharrezkoa izango litzatekeela, pertsona horien behar bereziei modu egokian erantzuteko. Hala ere, San Marcial klub irundarrak inklusioaren aldeko bidea hasita du eta ziur datozen hilabeteetan antzeko egitasmoak antolatzen jarraituko duela.

Txingudi Egaindar klubak eskubaloia haur, neska eta aniztasun funtzionala duten pertsonei hurbildu nahi die

Txingudi Egaindar eskubaloi klubak helburu berriak lortzen jarraitzen du. Klub irundarrak dagoeneko bi urteko ibilbidea egin du eta gero eta jende gehiago batu da beren kirol proiektuan parte hartzera. Pandemia garaian sortu arren, kluba haur, mutil, neska eta aniztasun funtzionala duten pertsonengana hurbiltzeko bidea topatzen ari da. Izaskun Larruskain Txingudi Egaindarreko lehendakari ohiak eta Mikel Carrascosa jokalari eta entrenatzaileak kluba zabaltzen jarraitzeko asmoaz hitz egin dute.

Pandemia garaian kirol klub bat zerotik abiarazteak ez du erraza izan behar, ezta?
Izaskun: Zuk esan duzun bezala, oso zaila. 2019-2020 denboraldian hasi ginen klubarekin, izugarrizko ilusioarekin, senior talde maskulino eta femenino banarekin hasi ginen. Eskubaloi eskola ere sortu genuen eta konfinamenduarekin batera hainbat proiektu bertan behera gelditu ziren: campusa, torneoa, haurren kluba... 2020-21ean asmo berdinarekin hasi ginen, eta mutil senior gehiago hurbildu zirenez senior taldea indartu eta klubaren helburuei eutsi genien. Aurten, behingoz, pandemiak haurren taldea aurrera ateratzen utzi digu eta, horretaz gain, jardunaldi inklusiboak ere antolatzen hasi gara.

Baloreak txiki txikitatik lantzea garrantzitsua da?
Mikel: Oso garrantzitsua da ume txikiak talde kirol batean hezitzea, balore asko barneratzen direlako. Txikitan hasi garenak, jokalari onenak izan ez arren, kirolari esker lagun asko egiteko aukera izan dugu eta hori da orain txikiei irakatsi nahi dieguna.

Garrantzi handia ematen diozue nahi duen edonork entrenatzailearen prestakuntza jaso ahal izateari?
Mikel: Bai, horretarako, zuzendaritza batzordeari jakinarazten diogu zeintzuk diren entrenatzaile izateko prestatu nahi duten neska-mutilak, eta prozesuari hasiera ematen diogu. Ikastaro bat bilatzen diegu eta, ondoren, klubean sartzen ditugu entrenatzaile erantsi gisa.

Izaskun: Hasieratik argi izan genuen zuzendaritza batzordeak jokalariengandik hurbil egon behar zuela eta jokalariek oso ondo baloratzen dute hori. Bertako jendearen prestakuntzak duen garrantziaz jabetu ginen eta jokalari dezente animatu ziren titulua ateratzera. Praktikak klubeko haurrekin egiten dituzte eta horrela, klubean jarduera gehiago antolatzeko aukera ere badugu.

Zuena Irungo emakumeen eskubaloi talde bakarra da. Nola lortu duzue?
Izaskun: Zuzendaritza Batzordea osatzen dugun kideok gure seme-alabek eskubaloiarekin oso lotura estua izan duten guraso talde bat gara eta zerbait berria sortzeko gogoak elkartu gintuen. Neska talde bat hurbildu zitzaigun jolastu nahi zutela esanez, eta beraien artean antolatu eta jokalari kopuru egokia bildu ondoren, gure klubera batzeko aukera eman genien. Aste gutxitan beste mutil talde bat hurbildu zitzaigun helburu berarekin. Nesken lehen urtea gogorra izan zen, oso gutxi baitziren, baina talde polita osatzea lortu zuten. Harrezkero, dena indartzen ari da, eta orain giroa oso ona dugu, beraz, jendea klubera batzera animatuko genuke.

Nesken taldea osatzeko zailtasunak izan zenituzten?
Izaskun: Orokorrean, arazo nagusia izan da neska gutxi animatzen direla eskubaloian jokatzera. Orain, neskak batez ere futbolean jolastea nahiago dutela ikusten ari gara. Neskak edozein kirol praktikatzera animatu behar dira. Gizartean, ordea, badirudi adin batetik aurrera neskek dantza bezalako bestelako jarduerak aukeratzen dituztela, nahiago dituztela. Kirolean emakume erreferenteak izatea oso garrantzitsua da, horrela neska gehiago animatuko baitira kirola egitera. Taldeko kirola izanda, eskubaloiak onura asko ditu.

Gainera, mugaz gaindiko jokalariak ere badauzkazue?
Izaskun: Bai, Irunen entrenatzen dugu, baina bai Hendaiako, Hondarribiko eta Nafarroako jokalariak dauzkagu. Irunen pistekin lotutako arazo handia dago, hirian ez baitago kirola egoki praktikatzeko instalazio nahikorik. Gaztelozar ikastetxeak bere instalakuntzak uzten dizkigu eta horri esker aurrera goaz.

Klubaren beste ardatza jardunaldi inklusiboen antolaketa da, ezta?
Izaskun: Nik hezkuntza premia berezietan lan egiten dut eta aniztasun funtzionala duen jendearekin hemen inguruan zer edo zer egiteko beharra ikusi nuen. Aurreratu elkartearekin harremanetan jarri ginen eta segituan horretarako beharra ikusten zutela erantzun ziguten. Aurreko urtean ezinezkoa izan zen eta aurten pixkanaka jardunaldiak antolatzen hastea erabaki genuen. Pandemiaren garai latzenean antolatu arren, taldera batzeko prestutasuna ikusi dugu. Euskal Herriko beste talde inklusiboekin harremanetan gaude eta prestakuntza egokia jasotzen lagunduko digute. Martxoaren 13an 10:30etatik 12:30etara beste jardunaldi egokitu bat egin genuen. Hurrengo denboraldian aniztasun funtzionala duen jendearekin talde bat osatu nahi dugu.

Zeintzuk dira zuen hurrengo erronkak?
Mikel: Gure asmoa da haurren taldeak indartzea, hau da, bi edo hiru talde lortzea, neskena zein mutilena. Horretaz gain, klubean talde inklusibo finko bat izan nahiko genuke, behintzat bat, eta hortik aurrera posible diren guztiak. Klub bat ezin da soilik senior talde bakarrarekin osatu, oso garrantzitsua iruditzen zaigu klubaren oinarria osatuko duten jokalariak edukitzea. Horrela, etorkizuneko jokalariak bermatuak egongo dira.

Izaskun: Eskola bat ere nahiko genuke. Izan ere, egoerak ahalbidetzen digun heinean, txikitatik gauzak lantzea beharrezkoa iruditzen zaigulako. Amets pila bat dugu. Niri ere Haur Hezkuntzako haurrekin zerbait egitea gustatuko litzaidake, aniztasun funtzionala dutenak barne, baina oinak lurrean izan behar ditugu eta dauzkagun baliabideekin egin behar dugu aurrera.

Oiasso Museoak Itziar Aretxaga elkarrizketatu du Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta

Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, emakume eta goi mailako zientzialari den Itziar Aretxagarekin hitz egiteko aukera izan dugu, bere lanari buruz, bere azken ikerketei buruz, eta nola ez, emakume zientzialari gazteen inguruan lanean ari den egitasmoaz ere hitz egin nahi genuke, eta urpeko argazkigintza egiteko daukan zaletasunaz, eta euskarari buruz ere, eta abar…

Astrofisikoa zara, emakumea, Mexikon bizi zara, eta euskarari eusten diozu oraindik ere. Emakume askorentzat eredu zara. Nola iritsi zinen astrofisikoa izatera?
Egia esan, ez da planeatutako bide bat. Gaztetan, unibertsitatean, ikerketa-munduan aritzearekin amesten nuen, baina ez nekien lortuko ote nuen. Orduan hasi zitzaidan bereziki astrofisika interesatzen, nahiz eta betidanik erakarri ninduten zientziek eta fisikak bereziki. Hala ere, ez nuen inoiz pentsatu Mexikon bizi eta lan egingo nuenik amets hori lortzeko. Bizitzak zailtasunak eta aukerak jartzen ditu, norberak imajinatzen ez dituen lekuetan. Adimena eta burua aukeretara irekita eduki behar da, eta konfiantza izan behar du norberak bere buruan, dagoen tokian egonik ere bere bizitza behar bezala garatu ahal izango duela.

Egin dituzun aurkikuntza guztietatik zein da harroen sentiarazten zaituena?
Galdera horri erantzutea ezinezkoa da niretzat. Zein seme-alaba maite duzun gehien galdetzea bezala da. 140 argitalpen zientifiko baino gehiago ditut… imajina ezazu! Agian aurkikuntza harrigarrienak eta gogokoen ditudanak distantzia handitan dauden galaxien bilaketari lotuta egon dira, edo muturreko propietateekin, zeru estra galaktikoko mapa oso sakonen bitartez. Errekor berri bakoitzak dakarren emozioak haurren kontua dirudi, baina oso zirraragarria da. Bereziki, aurkikuntza horiek gradu-ondoko ikasleen tesiei lotuta daudenean, are pozgarriagoa da.

Pentsatzekoa da gizateriaren historia osoan unibertsoari begiratu zaiola; bide luze horretan eta atzera begira zein emakume zientzialari nabarmenduko zenuke?
Zalantzarik gabe super heroia Marie Curie da, ez zuen hala nola bi Nobel sari irabaztea lortu, garai haietan gainera, non, orduko kongresuetako argazkiak ikusi besterik ez dago, ikerketan zihardutenemakume bakanetakoa zen. Hala ere, bere ikerketa nirearengandik urrun dago. Nire arloan, Vera Rubin nabarmenduko nuke, emakume honek sekulako ekarpenak egin zituen paradigma berri bat ezartzeko, non materia iluna den unibertsoko materia osagai garrantzitsuena.

Ikerketa eta azterlan asko emakumeek egiten dituzte. Zer egin beharko litzateke ikerketa horien emaitzetan emakume gehiago agertzeko?
Nazioarteko sariak eta unibertsitateetako eta ikerketa-zentroetako goreneko zuzendaritza bezalako aitorpen nabarmenenak, baita emakumeen karreren progresioa aitorpen maila gorenetaraino, zalantzarik gabe, oso atzeratuta daude. Ikerketaren munduan emakumeek eta gizonek aurrera nola egiten duten erakusten duen estatistika aztertuz gero, argi ikusten da genero joera bat dagoela, eta ez dagoela behar beste emakume goi mailako aitorpenekin. Zoritxarrez, oraindik lankide askok ez dute kontu honetan arazorik ikusten, eta arazorik ez dagoela ere pentsatzen dute.

Uste dut gai horri buruz hitz egiten jarraitzea baino ez dela geratzen, eta jabetzea bai gizonek bai emakumeek joera inkontziente horiek ditugula, eta, beraz, beti planteatu behar dugu ez ote duten eraginik izango gure erabakietan. Gainera, prebentzio-neurri batzuk daude, hala nola itsu bikoitzaren ebaluazioak "double-blind peer review" (ebaluatzaileak ez daki nor ebaluatzen duen), eta uste dut garrantzitsua dela bide horiek komunitate zientifikoan zabaltzea.

Zein da orain esku artean duzun ikerketa gaia?
Oraintxe bertan, ikasle batekin artikulu bat idazten ari naiz galaxia oso hautseztatuen propietateei buruz, eta bertan erakusten dugu haien bilakaera denboran zehar bisualki hautatutako galaxia masiboenen antzekoa dela. Oraindik ere joko handia ematen ari den Hubble Espazio Teleskopioarekin egindako ikerketak dira horiek. Gainera, une honetan maleta prestatzen ari naiz TolTEC Teleskopio Milimetriko Handiarentzako irudi tresna berria instalatzeko kanpaina batean sartzeko. Kanpaina horrekin, datozen urteetan zeruko eremu oso handien irudiak egitea espero dugu, hautseztatutako ehunka mila galaxia urrun detektatu ahal izateko, denboran zehar izan duten bilakaera hobeto ulertzeko.

Urte asko daramatzazu garapen bidean dauden herrialdeetako astrofisikari gazteen azterketak eta ikerketak bultzatzen. Zein da zure lana?
Ni Nazioarteko Astronomia Elkarteko, alegia munduko astronomo profesionalak biltzen dituen erakundeko Astronomo Gazteen Nazioarteko Eskolen zuzendaria naiz. Gradu-ondoko eskola trinkoak antolatzen ditugu astronomiako ikerketarako gai asko eskura ez dituzten lekuetan bizi diren ikasleei zuzenduta, bai beren komunitateak txikiak direlako, bai isolamendu egoeran daudelako. Gastu guztiak ordainduta, hiru astez gonbidatzen ditugu nazioarteko errekonozimendu handiko dozena bat irakaslerekin interakzioan aritzera, eskola, praktika, tailer, laborategi eta behaketa programa bizi baten bitartez. Eskola horiek laguntza-sare bat sortzen dute gradu-ondoko tesiak garatzeko, eta, askotan, partaideentzat nazioarteko lehen interakzioa izaten da, non beraien baldintza berberetan dauden beste ikasle batzuk aurkitzen dituzten. Munduan ezagutza berria eskuratzeko eta garatzeko dagoen aldea murriztera bideratutako programa bat da.

Zer eskaintzen dizu itsaspeko argazkilaritzak?
Niretzat dibertimendua eta terapia da, gizaki gisa dudan esentziarekin berrezartzen laguntzen didana. Ingurune ezin hobea da naturarekin konektatzeko eta eguneroko arazoez ahazteko. Ikerketatik burua atera behar da, eta pertsona osoak izateko aukera ematen duten beste jarduera batzuk bultzatu. Sormen artistikoarekin, kirolarekin eta esplorazioarekin lotutako jarduera horiek lasaitu egiten naute eta nor naizen jakiteko ikuspegi pertsonala ematen didate.

Nerabezaroan ikasi zenuen euskaraz hitz egiten, eta 40 urte geroago oraindik euskaraz egiten jarraitzen duzu, nahiz eta Mexikon bizi zaren…
Euskara ikasi nuen unibertsitatera sartu aurretik, eta UPV/EHUren arboretumaren oroimenezko espiralean ordezkatuta dagoen lehen belaunaldietako ikasle eta irakasle haietako bat naiz, Zientzia eta Teknologia Fakultateko hezkuntza formalean euskara sartu izana omentzen duena. Ondoren, 20 urterekin Madrilera joan nintzen ikasketak jarraitzera, eta hortik munduan zehar ibiltzera.

Gaur egun, Euskal Herrira itzultzen naizenean bakarrik hitz egiten dut euskaraz. Gutxi erabiltzen dut, baina Mintzapraktika online programei esker mantentzen dut (gutxienez 6 urtez parte hartu nuen horietan), eta orain batez ere, Internet bidez entzuten ditudan irratsaioei esker, eta baita liburu eta sare sozialei esker.

Nik uste dut nahi duenak ahal duela. Gaur egun ikasteko bide asko dago eta online doako baliabide asko daude. Kontua ez da erabat zuzen hitz egitea, ez horixe, baina niretzat garrantzitsuena elkarren artean komunikatzea da, eta bertako kulturan bete-betean parte hartzea.

Azkenik, bazterketarik bizi izan duzu emakume izateagatik?
Ziur aski bai, baina ez naiz horretaz jabetu. Ez dut ageriko diskriminaziorik jasan, ez eta salatzeko moduko botere-abusurik ere, baina horrek ez du esan nahi genero bazterketa inkontzienterik jasan ez dudanik. Zientzialarien karreren aurrerabideari buruzko estatistikak adierazten digu joera hori existitzen dela, eta oso zaila da ikertzaileen biztanleria orokorrean eragitea, eta ni salbuespena izatea.

BELASKOENEA HH

Belaskoenea ~~HH~~

GU ERE BIRZIKLATZEN

Ingurunea zaintzeko birziklatzearen garrantziaz ohartzen hasi gara eta Irunen ditugun edukiontzi desberdinak ezagutu ditugu.

Botatzeko ditugun materialak sailkatu, eta ondoren, dagokion edukiontzietan banatu ditugu.

Birziklatzeak duen garrantziaz gain, zenbait hondakin murriztu behar ditugula konturatu gara, batzuk gutxiago erabiliz, eta beste batzuk berrerabiliz.



Egunero hamaiketakoan eta bazkolorduan jaten dugun fruta-azal eta soberakinak gure baratzean dagoen konpostgailura eramaten ditugu.

Denbora-pasak

7 hitz: Planetak



Merkurio, Artizarra, Lurra, Marte, Jupiter, Saturno, Urano, Neptuno.

				9	3	7		5
5	7							
6						4		
9	2	5		4	7			
	4	8	6		5	9	7	
								4
		6		2	9		5	8
							2	7
	5			7	8			

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Txulin txantitin

Txunlin txantitin
Txulin barbero
Biainiyako semia
Neskatx pare bat
toriatzeko
ai zer txuliadoria!
Berak eman du
sobra notibo
orain gaixua kartzelan dago,
orain gaixua kartzelan dago.

Irungo S.R.A. andereari jasoa (1959-VIII-1). Anaia Juan Inaziori ikasi zion gaztetan.

Oso ezaguna zen Irunen katu hau duela 50 edo 60 urte.

(El Bidasoa, 1959-X-3).

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

EGUZKITZA LH6

Eguzkitza eskolako 6. Mailakoek bertsoak egin dituzte, hona hemen aurtengoak:

AMETS ARRAROAK

GU BELAR PIXKAT JATEN
ARI GARA ORAIN
GERO LO EGITERA,
GERATU NAIZ BIKAIN

BALE MARGOLARI BAT
ZEGOEN AMETSEAN
GUK IKUSI GENUEN
HEGAN MOTORREAN

GURE OHE AZPIAN
BADAUDE MUNSTROAK
AMARI DEITU DIOT
A ZE OSTIKADAK

KALETIK PASEATZEN
IKUSI LOREAK
KOLORE ARRAROA,
HORIEK ZIREN GRISAK

ARRAIN DANTZARI ASKO
DAUDE HEMEN BERTAN.
URETATIK ATERA
TA IKUSI PLAZETAN

GUK ERLOJU MENTALA
DAUKAGU BURUAN,
TIK TAK TEK TOK EGITEN
DENBORA GUZTIAN

Kulturarentzako espazio berri bat sortzeko helburuari eusten dio Ziztakak

Ziztakak Irunen kultura eta euskara uztartuko dituen espazio berri bat sortzeko prozesuari eusten dio. 2022ko lehen hilabeteetan Kulturakada burutzen ari da Ziztaka, hilero Irunen kultura modalitate ezberdinei lekua emateko. Bien bitartean, Harreman Biraren bitartez Ziztakako kideek udal alderdi politikoen uste eta iritziak bildu dituzte. Maddi Sanzek eta Beñat Altzagak Ziztakak datozen hilabeteetarako markatutako helmugen berri eman dute.

Zein izan da Harreman Biraren helburua?
Beñat: Harreman Birak erantzun dio hirugarren foroan ateratako mandatuari. Ziztakak dagoeneko bi urteko ibilbidea egin du, ibilbide oparoa, eta hirugarren foroan bi gauza proposatu ziren. Batetik, proiektuaren ardatz eta ezaugarri nagusiak eta, bestetik, proiektua aurrera eramateko lankidetzarako proposamena. Proposamena zehatza bezain lausoa zen eta guk mahai bat sortu nahi genuen, alderdi politiko guztiekin bilduz proiektua hezurmamitzeko, nahiz eta guk jada bizkarrezurra izan. Beti azpimarratu dugun moduan, proiektu hau irundar guztientzako proiektua da, guztien eta Irun hiriaren mesederako. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu udalaren paper aktiboa. Jendeak hirugarren foroan begi onez ikusi zuen proposamena. Alderdi politikoei bi galdera zehatz aurkeztu genizkien. Alde batetik, proiektuarekiko adostasuna eta, bestetik, proiektuaren bueltan elkarlanean aritzeko prestutasuna. Alderdi guztiekin bi erronda egin dira PPrekin izan ezik, haiek ez baitziguten erantzun. Bigarren errondan, aldiz, alderdi guztien iritziak eta zertzeladak jaso genituen.

Berriki egindako laugarren foroak zertarako balio izan du?
Maddi: Foroan Beñatek azaldutako guzti hori jendeari helarazi genion, hau da, alderdi politiko bakoitzarekin egindako lanketaren ondorioa. Era berean, hemendik aurrerako pausoak zehaztu genituen. Foro oso goxoa izan zen. Hasieratik argi daukagu Ziztakako kideak gutxi batzuk izan arren, herri mailako ekimena dela eta herriko jendearekin batera egin nahi dugula. Foroan jasotako proposamenekin aurrera egitea da gure helburua.

2022an Kulturakadari ekin diozue. Nola baloratzen dituzue orain arte egindako ekimenak?
Maddi: Otsailekoa oso polita izan zen. Irungo 5 artistek beraien lanak astebetez Irungo lokaletan erakustea lortu genuen, ohikoa ez den zerbait. Otsailaren 12an Museo Ibiltaria ekintza egin genuen eta lokal batetik bestera ibili ginen artista bakoitzak bere lana zertan datzan azaldu zezan. Gainera, establezimendu euskaldun bakoitzak zer eskaintzen duen azaldu zigun. Ekintzak lankidetza sortu eta saretzen jarraitzeko aukera eman zigun. Ziztakaren hasieratik argi izan dugu proiektuarentzat ezinbestekoa izango dela bidean saretzea.

Martxoan, berriz, literatura izan da protagonista, ezta?
Maddi: Martxoaren 12an San Juan plazan egon ginen ekintza guztiz ezberdin batekin. Lupe Lekuonak ipuinkontalariak haurrentzako ipuina kontatu zuen. Ondoren, Joseba Larratxe "Joseviski" komikigileak tailer bat eman zuen eta, amaitzeko, Itxaro Borda etorri zen euskara, emakumea eta literatura ardatz zituen hitzaldi batekin. Otsailekoarekin alderatuta oso ezberdina, baina, azken batean irundarrok hiriarentzat sortutako beste ekintza bat izan zen.

I. Ziztaka Literatur Lehiaketa antolatu duzu ere. Zertarako?
Maddi: Lehenbiziko kontakizun lehiaketa martxan jarri dugu, euskara hutsean Irunen egiten den lehenbiziko lehiaketa. Ideia handinahi bezain polita da. Irungo hainbat idazlerekin elkarlanean sortu dugu epaimahaia osatu ahal izateko. Oinarriak Ziztakaren sare sozialetan ikusgai daude eta maiatzaren 12ra arte zabalik egongo da parte hartzeko epea. Edonor gonbidatzen dugu bertan parte hartzera.

Orain arte antolatutako ekintzetan hiriko espazioak baliatu arren, Ziztaka espazio berri baten beharra defendatzen jarraitzen du?
Beñat: Bai. Kulturarekin edonora iritsi behar garela erabaki dugu, baina Irungo egoera soziolinguistikoa kontuan izanda, hiriak euskara eta kultura uztartuko dituen espazio bat behar duela argi dugu. Egun ez dago horrelako espaziorik eta alderdi politiko guztiek behar horrekin bat egin dute. Izan ere, Ziztakan Irungo euskal kultur ekosistema osoak du lekua eta haiek gabe ez gara inora iritsiko. Espazio horri askok euskararen itsasargia deitu izan diogu eta hori lantzeko udalarekin mahai bat sortuko dugu. Bide laburra izango ez den arren, arian, arian, zehetzen da burdina. Proiektuan sinetsita gaude eta denok elkarrekin solairuz solairu itsasargi hori eraikiko dugu azkeneko bonbilla piztu arte.

Zeintzuk izango dira datozen hilabeteetan eman beharreko pausoak?
Maddi: Apirilaren 9an Korrika badator eta 9aren eta 10aren arteko gau horretan pasako da Irundik. Ziztakako kideak Korrika Kulturalarekin batera elkarlanean ari gara eta apirilaren 9rako egitarau polit bat ontzen ari gara. Urte zailtxo batzuk pasa ostean, Korrikaren etorrera ospatu beharra ikusten dugu. Egun osoko egitaraua prestatzen ari gara: goizean poteo musikatua, bazkaltzeko elkartuko gara, arratsaldean haur eta gazteentzako jolasak izango ditugu, meriendatzeko txokolatada, Burrunba elektrotxarangarekin Mosku inguruan ibiliko gara eta eguna bertso musikatuen emanaldiarekin eta kontzertu polit batekin amaituko dugu.

Maiatzean Kulturakada zikloa amaituko dugu, maiatzaren 21ean Junkal plazatxoan egingo den antzerki batekin. Ikasturtea bukatzeko, ekainaren 11n ziurrenik, Ziztaka 2.0 eguna egingo dugu. Ikasturtea indarrez bukatzeko balioko digu egun honek, baina ez genuke aurreko ekitaldi guztiak bezala egin nahi, hau da, denon artean antolatu nahi dugun zerbait da.

Beñat: Harreman Birari dagokionez, azken foroan proposatutako mahaiaren sorrerari bide emateko, udal alderdi guztiekin bilduko gara hirugarrenez. Bertan Ziztakak mahai horren sorreraren alde egitea erabaki duela azalduko diegu eta pixkanaka horri forma emango diogu.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Aprobetxatu uda Eures 2022-rekin

EB/EEEko herrialde guztietako enplegu eskatzaileak eta 2022ko udan lan egiteko prest dauden abilezia linguistiko eta aurrekari desberdinetako langileen bila dabiltzan Europa hegoaldeko enplegatzaileak harremanetan jartzea da helburua.

Lan bila bazabiltza, aurrez izena eman dezakezu, parte hartzen duten enplegatzaileen artean nabigatu, eta postu hutsetarako aurkeztu.

Izena emateko epemuga: Martxoaren 22a.

Modalitatea: Online.

2022ko gidoi lehiaketa

«Eta zuk, nola kontrolatzen duzu?» programaren barruan hasiko dugu gidoi lehiaketa. Herritarrak ohitura osasungarrien eta tabakoaren eta alkoholaren kontsumoaren inguruan sentsibilizatzea du helburu jarduera horrek, bideo-spotak sortuz eta hedatuz.

15 eta 18 urte bitarteko gazte taldeek teknologien eta Interneten erabilera negatiboaren ondorioei eta alkoholaren eta tabakoaren kontsumoari buruzko gidoiak aurkeztu ahal izango dituzte. Hautatutako gidoiek grabaziorako ekipo profesional bat izango dute.

Bideo spot batetik. Ondoren, "Juventud Comprometida Film Festival" jaialdian, Esplai Fundazioak antolatzen duen film laburren erakusketan, aurkeztuko dira.

Epea: Martxoak 31.

2022ko Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa

Irungo Udalak lehiaketarako deialdia egiten du 2020ko Irungo San Pedro eta San Martzialetako kartela eta egitarauaren azala aukeratzeko, honako OIANARRIAK kontuan hartuta:

Edozeinek parte hartu ahalko du lehiaketan eta lan bakarra aurkeztuko du lehiakide bakoitzak. Edozein teknika erabili ahal izango da. Lanek egilearen jatorrikoak izan beharko dute eta aurretik argitaratu gabekoak.

- Paper euskarria: lanek 70x50 cm-ko tamaina izan beharko dute formatu bertikalean. Lanak kartelaren neurri bereko euskarri zurrun baten gainean muntatu behar dira.

- Euskarri informatikoa: paperean aurkezteaz gain, kartel-irudia kartelaren izenburua duen CD batean entregatu beharko da (JPG edo PDF batean), bi erresoluziotan: bata 300 pp-koa, 70x50cn-ko tamainan inprentara bidaltzeko, eta bestea erresoluzio baxuagoan webgunerako.

- Gaia: Irungo San Pedro eta San Martzial jaiei buruzkoak izan behar dute aurkezten diren lanek.

- Kartelaren iragartze testua honakoa izango da: IRUN SAN PEDRO-SAN MARTZIAL 2022 Ekaina. Irungo Udalak irudi korporatiboa sartuko du jaien iragartze-kartelean. Hori kokatzeko, egilearekin hitz egingo da.

- Sariak: 1.200,00 euroko sari nagusia emango da eta 300,00 euroko akzesit bat. Sarien zenbatekoei PFEZren atxikipena aplikatuko zaie, indarrean dagoen legeak agintzen duen bezala.

- Aurkezteko epea: 2022ko apirilaren 12tik 22ra (biak barne).

- Aurkezteko lekua: Amaia KZ

Gazteartean Expo: Zabal zabalik

Erakusketa honetan, AXPIren lan batzuk aurkeztuko dizkizuegu, eta ikusiko dugu irudia komunikazioan garrantzi handia duen informazio eta eduki iturria dela.

Artista honek marra garbi, arin eta kodifikazio konplexurik gabekoekin egiten duen lanak mezu bat bidali nahi du bere ilustrazio bakoitzean aurkezten diren egoeren gertutasunetik eta antzekotasunetik.

Erakusketa honetan 10 irudi daude A4 formatuan eta 4 A3 formatuan.

Erakusketa Martindozenea Gaztelekuan ikusgai egongo da apirilaren 23ra arte, Astearte, asteazken eta ostegunetan 17:00etatik 20:00etara eta ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 21:00etara.

Euskadiko tituludun gazteentzako BEINT bekak

Beint Nazioarteko Beken programaren helburua da euskal gazte tituludunak nazioartekotzearen esparruan gaitzea, atzerriko merkatuetan ezagutza akademikoak eta esperientzia praktikoa eskuratzen lagunduz, nazioartekotutako erakunde eta enpresen bidez mugikortasuna erraztuz.

Beint programak 2 urteko iraupena du guztira, 3 fasetan banatuta, eta goi-mailako unibertsitate-titulua duten 31 urtetik beherako Euskadiko gazteentzat da. 30.000 eta 60.000 euro arteko zuzkidura du pertsona bakoitzeko, nazioarteko destinoaren bizi-mailaren arabera.

Epea: Apirilak 4.



MARTXOAK

18

DokuIrun

Zer: "Bienvenidos a Chechenia" dokumentalaren emankizuna.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

19

Antzerkia

Zer: Man-up komendia, non Teatro en Vilo konpainiako zuzendariek maskulinitatearen eta beronen erreferenteen kontakizun tradizionalari mozorroa kentzeko erronka planteatzen dute.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: Sarrera orokorra 15 euro. Gazte txartelarekin, 14 urtetik beherakoentzat, familia ugarientzako kideentzat eta langabetuentzat sarrera 10 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

20

Kontzertua

Zer: Irun Hiria Musika Bandak askotariko egitaraua eskainiko du, pasodobleak eta musika modernoa uztartuz.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 12:30etan.

Sarrera: Doan, gonbidapenarekin.

24

Abentura

Zer: "Nepal, el país de los sentidos", Raquel Garciaren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Amaia kultur zentroan banatuko dira jarduera hasi baino 30 minutu lehenago.

Iraupena: 55 minutu.

25etik aurrera

Erakusketa

Zer: Mabi Revuelta artistaren "Historias del onirismo" erakusketa.

Non: Menchu Gal aretoan.

Ordutegia: Ostiral eta larunbatetan, 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era.

Sarrera: Doan.

26 eta 27

Opera

Zer: G. Verdiren Rigoletto obra Luis Mariano Lirika elkartearena.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: Sarrera orokorra 32 euro, bazkideentzat 25 euro eta gazteentzat 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Iraupena: 150 minutu.

Denbora-pasen emaitzak



8	1	4	2	9	3	7	6	5
5	7	3	8	6	4	2	9	1
6	9	2	7	5	1	4	8	3
9	2	5	1	4	7	8	3	6
1	4	8	6	3	5	9	7	2
3	6	7	9	8	2	5	1	4
7	3	6	4	2	9	1	5	8
4	8	9	5	1	6	3	2	7
2	5	1	3	7	8	6	4	9

Beste osteopatia mota bat iritsi da Irunera

Haien lana sakonago chispadelavida.com helbidean kontsultatu daiteke

Martxoaren 7an, bi frantziarrek, Bernard Tisnék eta bere seme Sébastien Tisnék, esku medikuntzako zentro bat inauguratuko dute Irunen, Ficobako azoka-esparruaren aurrean. Parisen, Lillen eta Genevan beren teknikak eta egiten dakitena irakatsi ondoren, Gipuzkoan behin betiko bizitzen jartzea erabaki dute. Zentro berri horretan, osteopatia tradizionala (bizkarrezurreko manipulazioak eta teknika leunak), antzinako eskuzko terapiak eta eguzki plexuaren eta diafragmaren desblokeoa praktikatuko dira, Kyma metodoarekin (metodo pertsonala). Haien lana chispadelavida.com helbidean kontsultatu daiteke.

Biak osteopatia tradizionalean trebatuta badaude ere, bi terapeutek kontatzen digute nahiago dutela sendalari deitu. Zergatia galdetzen diegunean, esaten digute askotan, beren kontsulten amaieran beren pazienteek galdera hau egiten dietela: “Zer egin didazu? Normalean, joaten naizen osteopatek ez dituzte teknika horiek erabiltzen. Beren ikuspegia desberdina da. Non ikasi duzu hau guztia? Zertaz ari diren hobeto ulertzeko, Bernardi emango diogu hitza, hau guztia zehatzago azal dezan.

Duela urte asko Osteopatia Tradizionaleko ikasketak egin ondoren, gaur egun ezagutzen dugun osteopatia ia ezezaguna zen garaian, oso osteopata gutxi ginelako Frantzian eta Europan, Frantziako landa-eremuetara joan nintzen pertsonen bila, ia guztiak nekazariak, Frantzian “rebouteux” izenekoak, euskaraz sendalariak deiturikoak. Pertsona horiek beren lekuan jartzen zituzten, beren ezagutza enpirikoak erabiliz, gizaki eta animalien artikulazioak, gurasoengandik seme-alabengana, belaunaldiz belaunaldi, transmititzen zituzten ezagutzetan oinarrituta, alegia. Mendeetan zehar kodifikatu eta esperimentatu dituzten teknika eraginkorrak garatu dituzte. Egin ahal izan ditudan bileretan, baliozko jendea ezagutu dut pertsonalki. Orduan erabaki nuen arreta handiagoz begiratzea antzinako praktika horiei guztiei. Egin nuen lehenengo gauza ikertzea izan zen, eta gero antzinako ekintza tradizional hauetan inspiratu nintzen, nire eguneroko jardunean txertatu ahal izateko. Geografikoki oso urrun zeuden lekuetan praktikatzen baziren ere, pertsona horiek guztiek esaldi bera esaten zuten: “Zure onera itzuliko zaitut”. Jende askok landa mediku horiengan fidatu behar izan zuen, Frantziako landa-eremu horiek hiri handietatik urrun baitzeuden.

Frantziako hego-mendebaldea Santiagorako erromesaldiak igarotzen diren eskualdea izanik,

Chispa de la Vida osasun zentroa:
Iparralde etorbidea, 44 - 2. solairua -20302 Irun (Gipuzkoa)

Ficobaren aurrean- (Doako aparkaleku pribatua Repsol zebitzugunearen aurrean)

Tel.: +34 624 440 480
Tel.: +33 668 690 963

Santiagora egindako bidaian zehar erromes ugariek zaintiratuak edo kontrakturak izaten zituzten bizkarraren behealdean, ibilaldi luzeak egiten zituztelako. Non gelditzen ziren?Sendalarien etxeetan, beraz, eraginkorrenak eta azkarrenak izan behar zuten, ibiltariek osasuntsu jarrai zezaten Konpostelarako erromesaldian. Batzuen ospea jatorrizko lurraldeetatik haratago hedatu zen.

Landa eremuko sendatzaile hauekin guztiekin Frantziako eskualde ezberdinak bisitatu ondoren, nire ikerketekin jarraitu nuen.

Frantziako eskualde ezberdinak bisitatu ondoren landa sendatzaile hauekin guztiekin, nire ikerketak jarraitu nituen mendebaldeko metodo osagarriak erabiliz (Bowen metodoa, Moneyron metodoa, Dorm metodoa, etab.)

Munduan zehar deskubritutako tradizioak

Pozik ez, eta beti aurrerapen bila, bidaia bat egin nuen mundu osoan zehar nire praktika aztertzeko eta hobetzeko, Estatu Batuetan hasita, osteopatiaren jatorria, eta gero Asian, Pakistan, Malaysia, Japonia, Txina, India, Nepal, Thailandia... Horren ondoren, Hego Amerika, Peru, Kolonbia eta Ekuadorrera desbideratu nintzen, baita Afrika Beltzeko herrialde batzuetara ere, eta Marokon amaitu nuen, non sendalari berbereengandik ikasteko aukera izan nuen. Bai atzerrirako bidaietan, bai Frantziako egonaldietan, nire seme Sébastien nirekin egon da. Gazte-gaztetatik egon zen unibertso horretan murgilduta, eta horrek, jakina, interesa piztu zion. Geroago, helduaroan, osteopatia tradizionalean ere trebatu ondoren, terapeuta gisa eman ditudan 35 urteetan ikasi, praktikatu eta hobetu ahal izan ditudan metodo guztiak erakutsi nizkion.

Gure praktika terapeutikoa

Mendebaldeko eta ekialdeko praktika konbinatu horien guztien sintesia da. Erabiltzen ditugun teknikak ez dira inola ere metodo klasikoekin alderatu behar, presioen kokapena eta energiak ez baitaude estandarizatuta eta etengabe aldatzen baitira gizabanako batetik bestera.

Teknika horiek azkartasunean eta abiaduran oinarritzen dira, burmuina gorputzaren puntu zehatz batean zentratzea saihesteko. Ez gara gorputza lasaitzen saiatzen; aitzitik, esnatzen saiatzen gara. Jarraitutako norabideek eta presioen norabideak ez dute zerikusirik akupuntura edo medikuntza tradizional txinatarrarekin.

Helburua da muskulu jakin batzuk sakonean mugitzea oso ordena zehatzean, presio oso neurtuarekin, inguruko eremuen arabera, eta, aldi berean, nerbio jakin batzuen ibilbideari jarraitzea, haiek estimulatzeko eta, horrela, bulkada berrezartzeko, gorputz-atal horiek lo daudenean.

Kyma metodoa: bizitzaren txinparta

Terapia horiez guztiez gain, arnas erlaxazioko metodo bat (diafragma desblokeatzea) praktikatzen dute beren tratamenduetan, Kyma metodoa izenekoa, Bernardek berak sortu duena eta beste profesional batzuei irakasten dietena. “Metodo hori diafragma eta eguzki plexua askatzean datza. Ez du zuzeneko edo zeharkako loturarik osteopatiarekin, eskuzko beste terapia batzuekin, perikardioaren askapenarekin edo Pranayama yogaren arnasketa-teknikekin. Helburu bakarra du: bizitza moderno honetan pertsona askok sentitzen duten eta bizitza zailtzen dien zapalkuntza edo arnasa hartzeko zailtasun sentsazio hori kentzea. Arnas ondoezaren eta zapalkuntzaren sentsazio hori da etengabeko antsietatearen eta kezkaren sorburua.”

Arnas ondoezaren eta zapalkuntzaren sentsazio hori da antsietate eta kezka etengabearen sorburua. Metodo hau erabiltzen da gelditutako energia gorputzetik kentzeko eta atxikitako emozioak askatzeko, nerbio-sistemaren erantzuna birformulatuz. Hustuketa emozionalerako modu bat da. 2016. urteaz geroztik, Sébastienekin batera landu dut Parisen, eta Frantziako eta Suitzako beste zientzialari batzuekin, bai medikuntza konbentzionaleko profesionalei (osteopatak eta fisioterapeutak), bai medikuntza alternatibo/laburreko terapeutei, bai garapen pertsonaleko entrenatzaileei, kirol entrenatzaileei, entrenatzaile mentalei eta aho entrenatzaileei erakutsiz.